

# Asisko gutuna

2014ko Urtarrila.

3. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

63. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Urte berria hasi dugu. Egia esan, honek ez du gure egunerokoan esanahi berezirik izan ohi. Hala ere, egokia izan daiteke urte berria irekitasunez hastea. Gure egunerokoa topaketez josia dago. Irekitasunez bizitzea anonimata apurto eta pertsonekin aurrez aurre egotea da, pertsonak ukitzea. Bestalde, ez ote dira horrelaxe, oharkabean, hasi gure harreman sendoetako gehientsuenak?

## Gogoetarako gaia

### *Gupidazko espiritualitatea*

Eguberritako jaietan murgildurik gabiltza, oraindiorio, eta belarrietan hainbeste eske ditugu solidario eta gupidatsu izatera, partekatzea eta hainbat modutako premien aurrean bihozbera izatera. Baina ziur aski irrikatan gara, jada, egun berezi hauek buka daitezten, eguneroko normaltasuna itzuli ahal izateko. Eta behin baino gehiagotan gertatzen zaigu, egun hauetako gastuekin, gure solidaritateak eta besteen premiak agudo ahaztea, geure beharrak ere ziztaka hasten baitzaizkigu.

Guzti horrek pentsarazten digu, gupida izateak (nozituarekin egiaz bat egiteak) zerikusi gutxi duela susmagarriak diren (egun jakinetan soilik azaltzen direlako) sentiberatasunekin, nahiz eta beroriek baliozkoak izan. Baliozkoak, hain zuzen, benetako gupidaren, pertsonari begietara begiratu eta harengan geure izatearen isla sumatzearen, zantzu eta islada txiki direlako. Baina bide motxean gelditzen dira.

Gupida zera da: aurrean dugun pertsona odoleko senide gisa sentitzea; geure bihotza hark bizi duena sentitzera eta bizitzera jartzea; haren poza,

ilusioa eta bizitzaren aldeko borroka geureak egitea, hala nola haren sufrimendu eta zailtasunak.

Norbaitengatik gupida sentitzea ez da harengatik pena sentitzea. Izan ere, lehen inpresioa baino haratago joan eta pertsona bat edo gehiagorekin benetan aurkitzeko gauza bagara, egiazko bihurtuko zaigu maiz besteekin inplikatu den jendeari entzun diogun hura: “Nik uste nuen ematera nindoala, eta eman nezakeena baino askoz gehiago hartzea suertatu zait”.

Pertsona konkretuekin topo egitean konturatzen gara, haiek agian faltan dituztela gauza batzuk edo laguntza behar dutela beren bizitzako halako une batean, baina aldatzen gaituen bizitza helarazten digutela. Eta horrela ez dakigu nork laguntzen dion nori, benetan jakin beharrik gabeko gauza, zeren eta transmisioa elkarrenganako baita.

Gupida izatea, azken batean, Jesusek esana utzi zigun hura baita: “Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 25, 31-38

«Orduan, erregeak eskuinekoei esango die: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; har ezazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoek esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”».

## Frantziskotar espiritualtasuna

“Honako honetan ezagutu nahi dut Jauna maite duzula eta baita ni ere, haren eta zure morroi hau, honela jokatzeko baduzu, alegia: ez dadila izan munduan anaiarik, daitekeen bekatu gehien egin balu ere, zure begiak ikusi ondoren, inoiz zure errukirik gabe alde egingo duenik, errukia eskatuko balu. Eta errukia eskatuko ez balu, galdetu zeuk errukirik nahi duen. Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak” (MiG 9-11).

Jainkoak bere gupidaz irabazi zuen Frantzisko eta, hari xeraz begiratu ondoren, errukia egitera eraman zuen. Jainkoaren ontasunaren fruitu izan zen bere konbertsioa. Harrezkero gupida bihurtu zuen Jainkoa eta anaiak aurkitzeko toki. Behartsu bat ikusten zuenean, gupidaz betetzen zitzaion bihotza eta errukiz begiak. Anaia bekatariaren aurrean ez du besterik pentsatzen: harekin gupida garbi garbia, begi garden eta abegitsuetan ispiatzeko modukoa, erabiltzea. Frantziskok ulertu zuen, Jainkoa beregana hurbildu zenean onginahizko begiradaz agertu bazitzaion, hori dela Jainkoaren irrika betea: guk begirada gupidatsu hori bihotzean mantentzea, hortik baitatorkigu bizi izate osoa, eta horrela besteei lagun diezaiegula Jainkoaren bihotz errukitsu hori zerbait sentitzen.

## Otoitza

Bedeinkatuak bitez, Jauna, besteen pausu balantzazkoak eta esku akituak konprenitzen dakitenak.

Bedeinkatuak, Jauna, errukizko erraiez keinu eta hitz egokia dutenak bakarrik eta babesgabe dabilenaren aurrean.

Bedeinkatuak, Jauna, anaia pobre eta gaixoaren aurrean beste aldera begiratzen ez dutenak.

Bedeinkatuak, Jauna, pertsoneri juzkurik egiten ez dietenak, beti barkatzen dutenak eta beren bihotzean erresuminari tokirik uzten ez diotenak.

Bedeinkatuak, Jauna, beren “arrazoi onak” kritikatzeko gai direnak,

beren gainjantzia mailegutan emateko edo bidaiari nekatuari milia bat gehiagoan laguntzeko prest daudenak.

Bedeinkatuak, Jauna, hainbaten oinazea, gosea eta sufrimendua telebistan ikustea ohiko egiten ez dutenak.

Bedeinkatuak, Jauna, besteari gurutzea eramaten laguntzeko prest daudenak gurutze hori nolana hiko delarik, eta adinari, erlijioari, jatorri nahiz kulturari kasurik egin gabe.

Bedeinkatuak, Jauna, premian laguntza eman, ematen edo emango didatenak haiengan agertzen baitzait zure erraietatik datorren Maitasuna. Amen.

## Gutuneko azken hitzak

“Egiazko maitasun oro gupidatsua da, eta gupida ez den maitasun oro norberekoa da.” (A Schopenhauer)

### 2014ko urtarrileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2, 16-21	8 Mk 6,34-44	15 Mk 1, 29-39	22 Mk 3, 1-6	29 Mk 4, 1-20
2 Jn 1, 19-28	9 Mk 6, 45-52	16 Mk 1, 40-45	23 Mk 3, 7-12	30 Mk 4, 21-25
3.Jn 1, 29-34	10 Lk 4, 14-22a	17 Mk 2, 1-12	24 Mk 3, 13-19	31 Mk 4, 26-34
4 Jn 1, 35-42	11 Lk 5,12-16	18 Mk 2, 13-17	25 Mk 16, 15-18	
5 Jn 1, 1-18	12 Mt 3, 13-17	19 Jn 1, 29-34	26 Mt 4,12-23	
6 Mt 2,1-12	13 Mk 1, 14-20	20 Mk 2, 18-22	27 Mk 3, 22-30	
7 Mt 4,12-17.23-25	14 Mk 1, 21-38	21 Mk 2, 23-28	28 Mk 3, 31-35	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Urtarrileko otoitza 30an izango da